

“ALPINISMOKO EUSKAL-NAFAR FEDERAZIOAREN MENDEURRENAREN (1924-2024) gaineko MANIFESTUA, 2024ko maiatzaren 18ko ekitaldian Elgetan (Gipuzkoa) irakurri zena eta EMF Euskal Mendizale Federazioaren eta MEKNF-FNDME Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakundearen kudeaketa-organoek aldeztu aurretik onartua

Euskadiko eta Nafarroako mendi federazioak erakunde bakar baten barnean jaio ziren 1924ko maiatzaren 18an, eta batasun horrek gure ehun urteko historiaren zati handi batean iraun zuen, baita frankismoaren garaian ere, harik eta joan den mendeko 80ko hamarkadan modu jakin batean interpretatutako zenbait lege autonomikok batasun hori zatitu zuten arte.

2024an elkarrekin ospatutako mendeurrenaren ospakizunaren aurretik, bi federazio autonomikoen arteko hurbilketa, hausnarketa, garapena eta lankidetzak gertatu da hainbat urtez, lan-erakunde bateratu baten esparruan. Lankidetzak horren ondorioz, *Euskal Herriko Mendi Biltzarra* eratu zen duela gutxi, eta hirugarren partaide bat ere badu: EMMOA Euskal Mendizalearen Museoa fundazioa.

Erakunde bateratu horren barruan –eta irudi korporatibo berarekin– zenbait jarduerak antolatzeko asmoa dute bi federazioek, orain arte, federazio bakoitzak bere aldetik eta dagokien esparru geografiko autonomikoaren barruan antolatu badituzte ere.

Bi federazioek bere horretan eutsiko diete nortasun juridikoari, kudeaketa-organoei eta egungo erantzukizunei, baina, horrekin batera, euskal eta nafar esparru kultural eta antolaketa-esparru historiko bat dagoela uste da, bai eta lurralde arteko lankidetzaren gizarte-eskaera garrantzitsu bat ere, aurreko urratsen eta onartutako erabakien euskarri dena. Hauek dira erabaki horiek:

- Urtero eta elkarrekin, Mendi Lasterketen Euskal Herriko Kopa antolatzea, modalitate guztietan. Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian egiten diren artean aukeratutako hainbat proba egingo dira.
- Urtero eta elkarrekin, Mendi Ibilaldien Euskal Herriko Zirkuitua egitea eta haren garapena aztertze eta balioesteko batzorde bateratu bat sortzea.
- Urtero eta elkarrekin, Eskaladako Euskal Herriko Kopa antolatzea, modalitate guztietan. Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian egiten diren hainbat proba hartuko ditu barnean.
- Urtero eta elkarrekin, Ibilketa Nordikoko Euskal Herriko Kopa antolatzea; Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan egiten diren artean aukeratutako hainbat proba hartuko ditu barnean.
- Urtero eta elkarrekin, Mendiko Eskiko Euskal Herriko Txapelketa eta Kopa antolatzea; diziplina horretan aritzeko aukeratutako lekuetan egindako probak hartuko ditu barnean.
- Euskal Herriko Erdigune Geografikorako ibilaldia egitea urtero, bi federazioen eta klub eta federatuen arteko senidetasun-eguna ospatzeko.
- Urtero eta elkarrekin, haurren ibilaldi bat eta beteranoen ibilaldi bat egitea; lurralde historiko batean (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa) egingo da urtero, txandaka.
- Urtero eta elkarrekin, Euskal Herriko Mendizalearen Gala ospatzea; txandaka antolatuko da, urte batean Nafarroan eta hurrengoan EAEn.
- Urtero eta elkarrekin, adingabeentzako udalekuak egitea. Urte batean Nafarroan antolatuko dira, eta hurrengo urtean EAEn, eta horrela urte urte.
- Urtero eta elkarrekin, Ehun Mendietako Mendizaleen Anaidaren Eguna ospatzea; txandaka antolatuko da, urte batean Nafarroan eta hurrengoan EAEn.



Betidanik betiko



1924-2024

- Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria zeharkatzen dituzten GRak eta GRTak mantentzeko eta horiei eusteko konpromisoa, Mendi Ibilbideen Batzordeen artean adostua.
- Pertsona guztien arteko berdintasuna bultzatuko duten neurriak ezartzeko konpromisoa.
- Lau herrialdeetan erantzun bateratua eta adostua ematea gure ingurune naturalean gerta daitezkeen ingurumen-erasoei, bai eta gure kirol-modalitateetako proba eta jardueretan ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko konpromisoa hartzea ere.
- Pyrenaica aldizkaria mendizale guztien mendi- eta kultura-komunikaziorako organo gisa berreskuratzeko beharrezkoak diren ekintzak garatzea; horretarako, gure mendizale guztiek, hau da, 53.000 pertsonak baino gehiagok, aldizkaria formatu digitalean edota paperean jaso dezaten ahaleginduko gara.
- Euskal eta nafar mendizaletasunarekin zerikusia duten material historiko garrantzitsuak berreskuratzeko, aztertzeko eta zabaltzeko proiektua indartzea, EMMOA Euskal Mendizaletasunaren Museoaren babespean eta Tolosan (Gipuzkoa) proiektatu duen kokapen fisikoan. Museo horri etorkizuneko jardunerako beharrezko funts ekonomikoak eskuratzen laguntzea, *Euskal Herriko Mendi Biltzarraren* barnean bi federazioek finantzatutako patronatu baten barnean.

Elgetan, 2024ko maiatzaren 18an

Euskal Mendizale Federazioa / Federación Vasca de Montaña
Sin.: Zigor Eguia Suances

Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakundea-Federación Navarra de Deportes de Montaña y Escalada Sin.:
Martín Montañés Alsasua